

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara eta Kultura Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren, 172/2018 FORU DEKRETUA, abenduaren 18koa, diru-laguntzak emateko oinarri-arauak eta deialdia onartzen dituena. Diru-laguntza horiek emango zaizkie, hain zuzen ere, irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoei, baldin eta 2019ko ekitaldian euskararen erabilera sustatu, zabaldu edo normalizatzeko jarduerak egiten badituzte.

Euskararen erabilera normalizatzeko Eusko Legebiltzarraren 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak, zioen azalpenean, ezartzen du Konstituzioak eta Autonomia-Estatutuak Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Agintaritzaren esku uzten dutela euskararen erabilpena zabaltzeko eta arauzkotzeko xedezko neurriak hartzea.

Hori horrela, 26. artikulua xedatzen du euskal herri-aginteei neurri egokiak hartu eta beharrezko bitartekoak jarri behar dituztela gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera sustatzeko, herritarrek salerosketako, kulturako, elkarteetako, kiroltako, erlijiozko edota beste edozein motatako jarduera guztiak euskaraz garatzeko aukera izan dezaten.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuak, zeinak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen, sail horri eskumen hau esleitzen dio: euskara sustatzea eta txertatzea gizartearen alor guztietan; hala, osatu egiten da foru diru-laguntzetarako deialdi honen esparru juridikoa.

Foru dekretu honek erregulazio onaren printzipioak betetzen ditu. Printzipio horiek Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean daude ezarrita eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen dira (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Foru dekretu horretan xedatutakoa kontuan hartuta, txosten hauek eman dira foru dekretu hau egin denean:

1. Proiektua sustatu duen sailaren txosten juridikoa.
2. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
3. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
4. Legezketasunari buruzko txostena.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru diputatuaren eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaiari buruzko foru dekretuen proiektuak onar ditzan. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari diru-laguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko. Eta Diru-laguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokiola onartzea, egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara eta Kultura Saileko foru diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak 2018ko abenduaren 18ko bileran aztertutik, honako hau



XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— Diru-laguntzen oinarriak eta deialdi publikoa onartzea

2019ko ekitaldian Bizkaiko Lurralde Historikoan euskararen erabilera sustatu, zabaldu edo normalizatzeko jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoei Euskara eta Kulturako Foru Sailak emango dizkien diru-laguntzen oinarri-arauak eta deialdia onartzen dira. Ondoren jasotzen da oinarrien eta deialdiaren testua.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK**1. oinarria.— Diru-laguntzaren xedea**

1. Foru dekretu honen arabera, diru-laguntza jaso dezakete Bizkaiko Lurralde Historikoan burutu beharreko proiektu eta jarduera hauek:

- a) Eremu ez-formaletan euskararen erabilera sustatu eta finkatzeko ekimenak edo ekintza-egitarauak, batez ere umeentzat eta gazteentzat astialdian eta kirolarekin lotuta egiten direnak, baita jarduera horiek gauzatzeko materialen sorrera ere.
- b) Lan-munduan euskararen erabilera sustatu eta finkatzeko ekimenak edo ekintza-egitarauak.
- c) Etorkinei euskara hurbiltzeko aukera ematen duten programak, baita etorkinen euskara-gaitasuna lantzeko programak ere.
- d) Beste programa edo proiektu batzuk: euskararen familia barruko transmisioa sendotzeko direnak; gizarte-harremanetan euskararen erabilera sustatzeko eta indartzeko egiten direnak; irakurtzeko ohitura sustatzeko programak; begiraleen hizkuntza-prestakuntza lantzekoak; materiala sortzekoak; tokian tokiko aldizkako argitalpenak sortzekoak; euskararekin, euskararen historiarekin edo hainbat eremutan euskararen garapenean protagonista izan diren pertsonaiekin zerikusia duten ospakizunak, eta abar.
- e) Tokian tokiko euskararen ondarea jaso, zaindu eta berreskuratu nahi duten egitarauak, ondare hori gizartearen barruan erabili ahal izateko (kantuak, bertsoak, euskalkiak etab.). Egitarauok aintzat hartzeko, nahitaezkoa izango da horiek guztiek Euskaltzaindiaren edo Labayru Ikastegiaren onirizpena izatea, eta eska-tzaileek eurek ekarri beharko dute.

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritakoari jarraituz, diru-laguntza jasotzen duten proiektuek ez dute hizkera sexistarik erabiliko, garatzen ari diren bitartean, ez zuze-nean, ez beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan (idatzietan, irudietan, eta abarretan).

Diru-laguntzaren eskabidean aurkeztutako proiektuak 2019ko ekitaldiaren barruan burutu beharko dira.

2. Foru dekretu honen ezarpen eremutik kanpo geldituko dira hauek:
 - a) Hizkuntzak irakasteko egitarau eta ekintzak, biztanle euskaldunetan %50 edo gehiago duten udalerrietan, Eusko Jaurlaritzak egindako VI. Inkesta Soziolin-guistikoaren datuen arabera.
 - b) Aisialdirako eta astialdirako egitarau eta ekintzak, biztanle euskaldunetan %70 edo gehiago duten udalerrietan, Eusko Jaurlaritzak egindako udalerrien sailka-penaren arabera.
 - c) Gizarte babeseko edukia duten egitarau eta ekintzak, biztanle euskaldunetan %50 edo gehiago duten udalerrietan, Eusko Jaurlaritzak egindako udalerrien sailkapenaren arabera.



- d) Emakumeen zein gizonenganako jokaera berdina ziurtatzen ez duten proiektuak, edo sexua dela-eta bereizkeria eragiten duten proiektuak.
 - e) Jai egitarauak, herriko jaien inguruko antolakizunak edota urtero ospatzen diren jaien ingurukoak.
 - f) Informazioaren eta komunikazioaren teknologien eta teknologia berrien arloko proiektuak, besteak beste, hauek sortzea: jokoak, aplikazioak, webguneak, bideoak, bideojokoak, jolasak, jostailu didaktikoak eta antzekoak, softwarea, etab.
 - g) Eusko Jaurlaritzaren 2012-2022 aldirako Euskara Sustatzeko Ekintza Planak ezarritako helburuekin bat ez datozen proiektuak. Plan hori Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluaren 2012ko uztailaren 24ko erabaki baten bidez onetsi zen.
 - h) Tokian tokiko lurreko telebista digitalak.
 - i) Aldizkako argitalpenak euskaraz ateratzen dituzten merkataritza-sozietateei, sozietate kooperatiboari, banakako enpresaburuei, profesionalari eta irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoari diru-laguntzak emateko deialdiaren babesean diruz lagundutako proiektuak, berariaz onetsitako oinarriekin bat. Ildo honetan, deialdi honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira 2019. urtean euskara hutsean argitaratutako aldizkako argitalpenak baldin eta udal, eskualde edo lurralde mailako informazioa eta diziplina anitzeko informazioa ematen badute, paperean zein euskarri informatikoan argitaratuta ere.
3. Diruz laguntzeko gastutzat joko dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak eta ezarritako epearen barruan egiten direnak, baina diru-laguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-kostua ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Entitate batek foru dekretu honen babesean diruz lagundutako proiektu edo jardueraren bat egiten badu eta proiektu edo jarduera horrek Bizkaiko Lurralde Historikoaren lurralde-eremua gainditzen badu, Bizkaian eginiko proiektu edo jardueraren garapenari dagozkion gastuak soilik izango dira diruz laguntzekoak.

Honako hauek ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- a) Ekipo-ondasunak erostea, baldin eta haien amortizazioa luzeagoa bada dekretu honetan jasotzen diren jarduerak egiteko epea baino.
 - b) Banku-kontuetako interes zordunak.
 - c) Interes, errekaratu eta zehapen administratibo eta penalak.
 - d) Prozedura judizialen gastuak.
 - e) Zeharkako zergak (besteak beste, BEZa) ez dira diruz laguntzeko gastutzat joko baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke. Kasu horretan, BEZik gabe agertu behar dira gastuen zenbatekoak, hala eskabidean dagoen aurrekontuan, nola diru-laguntzaren justifikazioarekin batera aurkeztuko den gauzatutako aurrekontuan. Era berean, ez dira diruz laguntzeko gastutzat joko errentaren gaineko zerga pertsonalak.
 - f) Oro har, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29. artikularekin bat etorrita, beren-beregi kanpo utzitakoak
4. Foru dekretu honen helburua erakunde eskatzaileen ekintzak babestu eta osatzea da; hori dela eta, ez dira inoiz finantzatuko jarduera egiteagatik sortutako gastu guztiak.

2. oinarria.— Onuradunak

1. Diru-laguntzaren xede den jarduera egiteko asmoa duten Bizkaiko Lurralde Historiko irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoak izan daitezke foru dekretu honetan araututako diru-laguntzen onuradun, baldin eta onuradun ez izateko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako egoeretako batean ere ez badaude, eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Sozietatearen egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.
- b) Dagokien Erregistroan izena emanda egotea.



- c) Aurrekontu araztu osoaren gutxienerako autofinantzamendua, eskatutako diru-laguntzak xedeztat duen programa edo proiektuari dagokionez:
 - 1) Merkaturatzeko asmoz egiten diren ekoizkinak gauzatzeko proiektuak direnean: %45.
 - 2) Gainerako proiektuetan: %35.

Eskaera-orriak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira betekizun horiek guztiak. Halaber, prozeduran zehar ere bete behar dira, diru-laguntzaren justifikazioa aurkeztu arte.

2. Foru dekretu honen ezarpen eremutik kanpo geldituko dira ondarean administrazio edo fundazio publiko baten edo batzuen partaidetza duten erakundeak eta unibertsitate publikoak.

3. Horrez gainera, pertsona juridikoak ezin dezakete diru-laguntza hauen deialdian parte hartu eta ezin daitezke onuradun izan baldin eta:

- a) berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik eza urratzeagatik zehapen irmoa izan badute administrazio-bidean, edo lan-arloan edo zigor-arloan, zehapenak ezartzen duen aldian.
- b) beren helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak badira.
- c) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen III. tituluan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte.

II. TITULUA

ARAUBIDE JURIDIKOA

3. oinarria.— *Aplikatu beharreko araudia*

Foru dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamendua, eta, haien guztien osagarri moduan, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legea eta beste edozein arau xedapen, duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.

4. oinarria.— *Arau-hausteak eta zehapenak*

Arau-hauste eta zehapenei dagokionez, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan xedatutakoa ezarriko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. tituluan xedatutakoa ere.

III. TITULUA

PROZEDURA

5. oinarria.— *Eskabideak aurkezteko lekua eta epea*

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14 artikulua araberako, diru-laguntzetarako eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira (<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>).



2. Eskabideak aurkezteko epea 2019ko urtarrilaren 2tik 31ra izango da, egun bi horiek barne.

6. oinarria.— Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiriak

1. Eskabideak aurkezteko, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bete eta aurkezteko dauden eredu espezifikoak erabili behar dira (<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>), 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Eskabide bakoitzak proiektu bakarrari buruzkoa izan behar da, hau da, zenbat proiektu lagundu nahi diren hainbat eskabide aurkeztu beharko dira.

Pertsona batek baino gehiagok elkarlanean gauzatzekoak diren programen kasuan, aurrekontuan zehaztu beharko da zer ekarpen egiten duen pertsona bakoitzak eta zer gastu dagokion bakoitzari; eskabidea, nolana ere, pertsona horietako batek bakarrik egingo du, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 10.3 artikuluan xedatutakoaren arabera. Horrela egiten ez bada, eskabide horiek ezetsi egingo dira.

2. Dokumentazio orokor eta espezifiko hau erantsi beharko da:

- a) Erakunde eskatzailearen estatutuen edo eraketa-eskrituren fotokopia.
- b) Erakunde eskatzailearen Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren fotokopia, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak emandakoa.
- c) Dagokion erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria.
- d) Banku-helbideraketaren fitxa, alta edo aldaketaren bat bada bakarrik.
- e) Jardueren proiektua azaltzeko memoria, eta bertan jaso behar dira, esaterako, proiektuaren ezaugarri orokorrak, hartzaile potentzialak, helburuak eta proiektua lantzeko, banatzeko eta abarrerako bitarteko teknikoaren deskripzioa.
- f) 1. oinarriaren 1. zenbakiaren e) letran aipatzen direnen kasuetan (Tokian tokiko euskararen ondarea jaso, zaindu eta berreskuratu nahi duten egitarauak, ondare hori gizartean erabili ahal izateko —kantuak, bertsoak, euskalkiak etab.—), Euskaltzaindiaren edo Labayru Ikastegiaren txostena, eskatzaileek eurek ekarri beharrekoa.
- g) Proiektuaren sarrera eta gastuen aurrekontu xehekatua, non autofinantzaketa maila ere zehaztuko den; aurrekontu hori bat etorri behar da Bizkaiko Foru Aldundiko egoitza elektronikoa agertzen den eredu betegarriarekin.
- h) Proiektua gauzatzeko aurrez ikusitako datak eta lekuak.
- i) Kasuan kasuko egitaraua aukeratzea, foru dekretu honen 1. oinarriaren 1. zenbakiaren a) eta e) arteko letretan ezarritako sailkapenaren arabera.
- j) Zer jarduera mota egingo den:
 - 1) Bereziak (HAKOBA, Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordeak nahiz Bizkaiko Euskara Bizia batzordeak iradokitako lehentasunezko ekintzak eta egitasmoak: kirola eta euskara; 11 egun euskaraz ekimenari lotutako jarduketak; etorkinei zuzenduak; lan munduan euskararen erabilera areagotzeko proiektuak; desgaitasuna duten pertsonekin egindakoak...).
 - 2) Gazteentzako jarduera.
 - 3) Umeentzako jarduera.
 - 4) Tokian tokiko euskararen ondarea.
 - 5) Edonorentzako jarduera.
- k) Proiektuari eskainitako dedikazioa, aurrez ikusitakoa: proiektua aurrera eramaten ziur aski parte hartuko duten pertsonen kopurua eta bakoitzak izango duen ordu-dedikazioa, kalkulaturakoa.
- l) Autofinantzaketaren portzentajea: portzentaje bat da, aurrez ikusitako sarrera guztien batura (proiekturako aurrez ikusitako diru-laguntza publikoetatik datozenak eta deialdi honetan eskatutako zenbatekoa kontuan izan gabe) sarrera osoen arabera erakusten duena.



- m) Proiektuan lanpostu kualifikatuetan edo erantzukizuna dakartenetan jardungo duten emakumeen kopurua; horrez gainera, entitate eskatzaileak emakume eta gizonen berdintasunerako politikak edo jarduketak egiten duen ibilbidearen azalpena.
 - n) Informazioa ematea emakumeek eta gizonak proiektuan berdintasunez parte hartzeko aukeraz, aukera horretarako egon daitezkeen oztopoez eta, hala bada, gorkio, aukera horretan berdintasuna bermatzeko neurriez.
 - o) Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 2. artikulua aintzat harturik, erakundeak urtean aurreikusten dituen sarrerak, guztira.
3. Eskabide hau sinatuta baimena ematen zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kulturako Foru Sailari Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak eskatzeko, Diru-laguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 21.3 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

7. oinarria.— Eskaera zuzendu eta hobetzea

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, orduan erakunde interesdunari errekerimendua egingo zaio, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan hutsunea zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan; hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskabidea artxibatu egingo dela adieraziko zaio.

2. Edonola ere, Euskara eta Kulturako Foru Sailak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du.

8. oinarria.— Diru-laguntza emateko prozedura

Diru-laguntza hauek norgehiagoka eta hainbanaketa erabiliko dituen sistema misto baten bidez emango dira; hau da, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da eta aurkeztutako eskabideak alderatuko ditu, 9. oinarrian ezarritako ebaluazio-irizpideak kontuan hartuta, eskabideen arteko lehentasun-hurrenkerara ezartzeko. Diru-laguntzak 85 puntutik 100 puntu bitartean lortu dituzten proiektuei adjudikatuko zaizkie, norgehiagoka araubidearen bidez, dagokion aurrekontuko partidan izendatutako diru-kopurua muga dela.

Era berean, eta 9. oinarriaren 5. zenbakiarekin bat etorruta, geratzen den kreditu erabilgarriaren hainbanatzea ezarriko da epaimahai kalifikatzaileak ezarritako gutxieneko puntuazioa eta 84 puntu (biak barne) arteko emaitza lortzen duten eskabideen artean. Hainbanaketa da puntuazio tarte honetan diru-laguntzak emateko prozedura egokiena; izan ere, aukera ematen du proiektu gehiagori laguntza emateko, eta hala deialdiaren aplikazio-eremua zabaltzen da.

Prozedura honek salbuespen-izaera du norgehiagoka araubide arruntaren aldean, eta Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.1 artikuluan du lege-babesa; izan ere, honela dio artikulua horrek: oinarri-arauetan aurreikusita badago, organo eskudunak diru-laguntzetarako gehienezko zenbateko osoa hainbanatuko du diru-laguntzaren pertsona onuradunen artean.

9. oinarria.— Diru-laguntzak baloratzeko irizpideak

1. Diru-laguntzetarako eskabideei buruzko ebazpen-proposamena egiteko eta haien zenbatekoa zehazteko, epaimahai kalifikatzaileak ondorengo irizpideak eta haien haztapena hartuko ditu kontuan. Gehienez, 100 puntu emango dira, honela banatuta:

- a) Jarduera mota, ondoko lehentasun-hurrenkeraren arabera (eman ahal den kopuru osoaren 35 puntu gehienez):
 - 1) Bereziak (HAKOBA, Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordeak nahiz Bizkaiko Euskara Bizia batzordeak iradokitako lehentasunezko ekintzak eta egitasmoak: kirola eta euskara; 11 egun euskaraz ekimenari lotutako jarduketak;



etorkinei zuzenduak; lan munduan euskararen erabilera areagotzeko proiektuak; desgaitasuna duten pertsonekin egindakoak...).

- 2) Gazteentzako jarduera,
- 3) Umeentzako jarduera,
- 4) Tokian tokiko euskararen ondarea,
- 5) Edonorentzako jarduera.

Entitate batek foru dekretu honen babesean diruz lagundutako proiektu edo jardueraren bat egiten badu eta proiektu edo jarduera horrek Bizkaiko Lurralde Historikoaren lurralde-eremua gainditzen badu, Bizkaian eginiko proiektu edo jarduerarako aurrekontua eta langileak soilik baloratuko dira.

- b) Proiektuek ESEP 2012-2022 aldirako Euskara Sustatzeko Ekintza Planak ezarritako helburuekin bat egitea (eman ahal den kopuru osoaren 15 puntu gehienez).
- c) Erakundearen helburuek ESEP 2012-2022 aldirako Euskara Sustatzeko Ekintza Planarekin bat egitea (eman ahal den kopuru osoaren 15 puntu gehienez).
- d) Jardueran parte har dezaketenen kopurua (eman ahal den kopuru osoaren 15 puntu gehienez).
- e) Proiektuak euskararen ondarea gordetzeari egiten dion ekarpena (10 puntu).
- f) Proiektuan lanpostu kualifikatuetan edo erantzukizuna dakartenetan jardungo duten emakumeen kopurua (eman ahal den kopuru osoaren 5 puntu gehienez).
- g) Entitate eskatzaileak emakume eta gizonen berdintasunerako politikak edo jarduketak egiten duen ibilbidea (eman ahal den kopuru osoaren 5 puntu gehienez).

2. Proiektuak aztertu ondoren, epaimahai kalifikatzaileak gutxieneko puntuazio bat ezarriko du eta hortik gorako puntuazioa lortzen duten proiektuek diru-laguntza jasoko dute. Epaimahaiak 300 eurotik beherako ekarpena ezarri dien proiektuek ez dute diru-laguntzarik jasotzeko eskubiderik izango.

3. Diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, jardueraren aurrekontua hartuko da oinarri (gutxienez, Bizkaiko Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren bitartez eskuragarri dagoen ereduaren xehetasunekin aurkeztu behar da aurrekontua). Aldez aurretik, behar izanez gero, zenbatu ezin diren gairik ezin diren arazketak egingo da, eta kendu egingo dira deialdiaren xedearekin zuzenean lotuta ez dauden gastuak.

4. Proiektu bakoitzari adjudikatutako diru-laguntzak ez du gaindituko aurkeztutako proiektuaren aurrekontu araztuaren %40. Lor daitekeen gehieneko puntuazioari (100 puntu) aplikatuko zaio ehuneko hori, 9. oinarri honetan ezarritako irizpideen arabera; ondoren, epaimahaiak ezarritako irizpidearen arabera, beherantz joango da 85 puntura heldu arte. Proiektu batek ezin izango du inoiz ere laurogeita hamabost mila (95.000) eurotik gorako diru-laguntza jaso.

5. Epaimahai kalifikatzaileak ezarritako gutxieneko puntuazioa eta 84 puntu (biak barne) arteko emaitza lortzen duten eskabideek: eskabideon eskura dagoen kredituaren hainbanatzea eginda ateratzen den zenbatekoa jasoko dute, lortu duten puntuazioaren arabera, ezarritako ehunekoak eta gehieneko muga kontuan hartuta. Baliagarri dagoen kreditua 85 puntu gutxienez lortzen dituzten eskabideei diru-laguntzak eman ondoren geratzen dena izango da.

6. Behin eskabideen arteko lehentasun-hurrenkera ezarrita, hurrenkera aurretik dauden erakunde hautagaien gairik ezin diren beste erakunde onuradunen mesederako izan ahalko dira.

10. oinarria. — Aholkularitza

Euskara eta Kultura Saileko Euskara Zerbitzuak behar den laguntza teknikoa edo aholkularitza eskainiko ditu foru dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko, (horretarako, www.bizkaia.eus/laguntzaile Euskara foru webgunea erabili ahal da).

**11. oinarria. — Epaimahai kalifikatzailea**

1. Epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko. Epaimahaikideak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kulturako foru diputatuak izendatuko ditu, foru agindu bidez. Izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan ezarritakoa beteko da.

2. Epaimahai kalifikatzaileak, diru-laguntzak emateko irizpideak kontuan hartuta, ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Euskara eta Kulturako foru diputatuari, behin betiko ebazpena eman dezan.

12. oinarria. — Ebazpena

1. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4. artikuluan xedatutakoa betez, deialdi honetan, interesdunei ez zaie, lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposamena eman, eta, gero, entzunaldiaren izapidea eskainiko, zeren prozeduran interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak besterik ez baitira jaso eta kontuan hartuko.

2. Deialdia ebatzi baino lehen, Euskara Zerbitzuak egiaztatuko du ea eskatzaileek egunean dituen zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak. Aurreko guztia egiaztatu ondoren ikusten bada eskatzailearen batek betebeharrak horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

3. Eskabideei buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko epea hiru (3) hilabete izango da, gehienez, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta. Euskara eta Kulturako foru diputatuak emango du ebazpena, epaimahai kalifikatzailearen proposamena kontuan hartuta.

Epe hori eskabideari buruzko ebazpen espresurik eman eta jakinarazi gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsizat joko da; hala ere, geroago ebazpen espresua eman ahal izango da.

4. Deialdi hau ebazteko ematen den foru agindua deialdi publiko honetarako eskabidea aurkeztu duten interesdunei jakinaraziko zaie; horretarako, iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Egoitza elektronikoa bertaratzearen bidez ere jakinaraziko zaie interesdunei.

Foru agindu horretan berariaz jasoko da ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela eta interesdunak aukerako berraztertze errekurtsoa jar dezakeela foru agindu horren aurka, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kulturako foru diputatu andrearen aurrean, hilabeteko (1) epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi (2) hilabeteko epearen barruan; epeok jakinarazpena egin eta biharamunean hasiko dira zenbatzen.

13. oinarria. — Bateragarritasuna beste diru-laguntza batzuekin

1. Foru dekretu honen babesean emandako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publikok zein pribatuk ematen dituzten diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, Bizkaiko Foru Aldundiak berak esleitutakoak salbu.

2. Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren inguruabarretakoren bat aldatzen bada, eta betiere aldi berean udalerrietako, autonomia-erkidegoetako, estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko batek emandako beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat lortzen bada, gerta liteke diru-laguntza emateko ebazpena aldatzea, zeren foru dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzen zenbatekoa, bakarrik zein beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin bat eginda (finantzaketa propioa barne), inolaz ere ezin baita izan onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.



IV. TITULUA

DIRU-LAGUNTZEN KUDEAKETA ETA JUSTIFIKAZIOA**14. oinarria. — Diru-laguntzaren ordainketa**

1. Deialdi hau ebazteko ematen den foru agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo hamar egun baliodunetan onuradunak ez badio beren beregi eta idatziz uko egiten, diru-laguntza onartu duela ulertuko da.

Deialdi honen ebazpena dela-eta onuradunen batek uko egiten badio emandako diru-laguntzari, horrek ez du berekin ekarriko ebazpenean jasota dauden eta onuradunei jakinarazi zaizkien diru-laguntzen zenbatekoak handitzea.

Diru-laguntza eman dela Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, 10 egun baliodun igaro eta berehala, Euskara Zerbitzuak hari dagokion zenbatekoaren ordainketa izapidetuko du Ogasun eta Finantzen Foru Sailean, eta erakunde onuradunei ez zaie horretarako inolako bermerik eskatuko.

2. Diru-laguntza ordaindu baino lehen, onuradunek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko da.

Egiaztapena egin ondoren ikusten bada onuradunetako batek betebeharrak horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio, horrela egiten ez badu, emandako diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko duela.

15. oinarria. — Hartzailearen ekimenez egindako itzulketa

1. 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan xedatutakoaren arabera (dekretu horren bidez, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten da, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena), onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Bizkaiko Foru Aldundiak emandako diru-laguntza, foru erakundeak aurretik hala eskatu gabe.

Halakoetan, Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntza benetan itzultzen den arte sortutako berandutze-interesak kalkulatuko ditu, aipatutako 76. artikuluan eta 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

2. Onuradunak berak eskatuta foru diru-laguntza itzultzeko ordainketa-gutun bat erabili behar da. Ordainketa-gutun hori diru-laguntzaren kudeaketaz arduratu den foru zerbitzuaren bulegoetan izapidetuko da, onuradunak eskaera aurkeztu eta gero. Ordainketa-gutunean honako hauek adierazi behar dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutze-interesak), ereduaren kodea eta diru-sarreraren zergatia, itzuli behar den diru-laguntzari erreferentzia eginda.

3. Diru-laguntzaren onuradunak finantza-erakunde batean ordainketa egin ondoren, ordainketaren kopia edo diru-sarreraren frogagiria bidali beharko dio diru-laguntzaren kudeaketaz arduratzen den Euskara eta Kultura Saileko foru zerbitzuari.

16. oinarria. — Justifikazioa egiteko epea eta era

Foru dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzen onuradunek konpromiso hauek bete behar dituzte:

1. Jarduera 2019ko ekitaldian egin behar dute oso-osorik.

2. Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamenduari 57. artikuluan (60.000 euroko diru-laguntza publikoa edo handiagoa lortzen duten proiektuei aplikatzekoa, betiere deialdi honetan ezarritako mugak kontuan hartuta) eta 60. artikuluan (60.000 eurotik beherako diru-laguntza lortzen duten proiektuei aplikatzekoa) ezarritakoarekin bat, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailean aurrean justifikatzea proiektua burutu dela, bete egin direla laguntza emateko oinarri izan ziren baldintzak eta aplikatu egin dela diruz lagundutako proiektuaren zenbateko araztuaren gastua. Horretarako, dokumentazio hau aurkeztu behar dela egoitzan, beranduenez 2020ko otsailaren 28an:



- a) Diruz lagundutako jardueren nondik norakoei buruzko memoria, bertan honako hauek zehaztuta: noraino burutu diren jarduerak, bai eta diruz lagundutako proiekturako erabili diren giza baliabideak eta baliabide materialak ere.
- b) Diruz lagundutako jarduerari dagozkion diru-sarrera eta gastuen behin betiko zerrenda zehatua, egoitzan eskuragarri dagoen ereduaren arabera.
- c) Gastu edo fakturen frogagiriaren zerrenda, gastu edo faktura horien zenbatekoa eta aurrekontuko partida adierazita, egoitzan eskuragarri dagoen justifikazio-kontuaren arabera. Zerrenda horretan agertzen diren frogagirik bat etorri behar dute aurrekontu araztuaren kontzeptuekin.

Bizkaiko Foru Aldundiak berak egoki iritzitako laginketa-teknikak aplikatuko ditu frogagiriok egiaztatzerakoan, diru-laguntza egoki aplikatzeari buruzko zentzuzko ebidentziak lortu ahal izateko. Eta, horretarako, onuradunari eskatu ahal izango dio bidaltzeko aukeratutako gastu-egiaztagiria, bai eta haiek ordaindu izanaren frogagiriak ere (gorago aipatutako zerrendarekin bat etorri behar dutenak).

- d) Formatu elektronikoan sortutako materialaren aleak, halakorik sortu bada.
- e) Diruz laguntzeko gastuaren aurrekontua justifikatzeko, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, diru-laguntza foralaren entitate onuradunak egiaztagiria aurkeztu behar ditu, gutxienez hiru hornitzailei eskaintza egiteko eskatu zaiela justifikatzeko, baldin eta administrazio-kontrataziorako araudian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen badira, salbu eta kontratuaren ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago halakorik egin dezakeen erakunde nahikorik edo gastua eskabidea aurkeztu aurretik egin bada.

Aurkezten diren eskaintzen artean aukeratzeko, efizientzia- eta ekonomia-irizpiden arabera jokatu da. Hala, proposamen ekonomikorik onena aukeratu ez denean, beren-beregi justifikatu beharko da inguruabar hori, memoria baten bidez.

- f) Hainbat erakundek lankidetzan egindako proiektuen kasuan, aurrekontuan jasotakoa kontuan hartuta aurkeztuko dira frogagiriak.
- g) Datu espezifiko hauek jaso beharko dira, egoitzan eskuragarri dagoen ereduaren arabera:
 - 1) Proiektua, azkenean, zer egun eta lekutan gauzatu zen.
 - 2) Proiektua aurrera eramaten parte hartu duten pertsonen kopurua eta bakoi-tzak izan duen ordu-dedikazioa.
 - 3) Autofinantzaketaren portzentajea: portzentaje bat da, sarrera guztien batura (proiekturako diru-laguntza publikoetatik datozenak eta deialdi honetan eskatutako zenbatekoa kontuan izan gabe) sarrera osoen arabera erakusten duena.

17. oinarria. – Diru-laguntzaren onuradunaren beste betebeharrak

Onuradunek betebeharrak hauek ere izango dituzte:

- a) Diru-laguntza emateko orduan kontuan hartu den edozein alderdi objektibo edo subjektibok aldaketarik izan badu, horren berri ematea diru-laguntza eman dionari.
- b) Jardueraren hasiera-dataren eta amaiera-dataren berri ematea diru-laguntza eman dionari, idatziz. Halaber, diruz lagundutako jarduera kontrolatzeko, haren jarraipen egiteko edo jarduera ikuskatzeko eginkizunak edo ahalmenak gauzatzeko lanak erraztu beharko ditu.
- c) Udalerrietako, autonomia-erkidegoetako, estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko batek xede bererako emandako beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren berri ematea laguntza eman dion erakundeari.



- d) Euskara eta Kulturako Foru Sailari laguntzea, hala eskatzen bazaio, eta erakundearen gaineko edozein informazio ematea (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak, etab.).
- e) Euskara eta Kulturako Foru Sailak, Ogasun eta Finantzen Foru Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituzten egiaztapen-jarduerak onartzea.
- f) Diru-laguntza jaso ondoren editatutako material guztietan eta egindako jendaurreko agerpen guztietan Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa agerraraztea. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-irudian ezarritako elementuak baliatuko dira nahitaez, bai eta euskararen txantxangorriarena ere, eta logotipoaren eta irudiaren aldamenean esaldi hau agertuko da hitzez hitz:
«Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du»
edo
«Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza».
- g) Jarduera bakoitzerako sortu diren katalogoen, kartelen edo izaera grafikoa duen beste edozein agiriren aleak aurkeztea. Ale horietan jarduerak Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza jaso duela agerrarazi behar da.
- h) Diru-laguntza jaso duen proiektuaren kanpoko publizitate eta jakinarazpen guztiak gutxienez euskaraz egitea.
- i) Bizkaiko Foru Aldundiari dohainik eta eskusibitaterik gabe lagatzea aurkeztutako dokumentazioan dagoen informazio tekniko eta grafikoa erabiltzeko eskubidea, informazio hori zabaltzeko edo/eta argitaratzeko, edozein baliabide edo formatu bibliografiko, ikus-entzunezko edo informatiko erabiliz edo teknikaren erabilerak ahalbidetzen duen beste edozein erabiliz.
- j) Edozein kasutan ere, onuradunak beste interesdun batzuen aurretik eman behar dio lehentasuna Foru Aldundiari, diruz lagundutako esku-hartzeari buruzko memoria argitaratzeko.
- k) Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen definizio, sarbide, kontratazio eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonal, lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzearen arloan, lanaren kalitate eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikal, ordezkaritza eta negoziazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak bermatuta.
- l) Zaintzea emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan.
- m) Diruz lagundutako proiektua gauzatzen den bitartean, ez erabiltzea hizkera sexistarik dokumentuetan, ikus-entzunezkoetan eta gisakoetan (idatzizkoetan zein digitaletan), eta pertsoneri buruzko edozein estatistikatan datuak sexuaren arabera bereiz jasotzea, hala ezartzen baitu arlo horretan gorde behar diren printzipio nagusiak jasotzen dituen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Aruaren 3 artikulua.
- n) 250 langiletik gora izanez gero, egiaztatu behar da Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Legean ezarritakoarekin bat datorren plan bat dutela emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta benetan aplikatzen dutela. Horretarako, betebehari hori betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute justifikazioarekin batera.
- o) Plantillan hamabost langiletik gora izanez gero, bermatu beharko dute neurriak hartzen dituztela lan-arloan emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko, hari



aurre egiteko, haren jarraipena egiteko, hura ebaluatzeko eta desagerrarazteko, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko. Horretarako, betebeharrak hori betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute justifikazioarekin batera.

- m) Bizkaiko Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Diru-laguntzen Erregelamenduaren 54. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerakoak.
- n) Deialdi honi dagokionez, foru diru-laguntza baten onuradunek bete egin behar dituzte 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan eta Diru-laguntzen Erregelamenduaren 53. artikuluan azpikontratazioa dela-eta zehazten diren betekizunak eta debekuak. Gehienez ere, diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren %90 azpikontratatu ahal izango da.

18. oinarria. — Itzulketa

1. Jasotako diru-laguntza eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira, baldin eta ez badira betetzen aurreko oinarrietan, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo foru arau hori garatzen duen Erregelamenduan jasotako betebeharretariko bat edo batzuk. Bestiak beste, honelakorik gertatzen bada:

- a) Justifikatu beharreko guztia justifikatzen ez bada.
- b) Emandako diru-laguntzari dagokion helburua betetzen ez bada.
- c) Diru-laguntza justifikatzen ez bada edo foru dekretu honetan ezarritakoaren arabera nahiko edo behar bezala justifikatzen ez bada, justifikatu ez den diru-laguntzaren zatia eta sortutako berandutze-interesak itzuli beharko dira, Bizkaiko Foru Aldundiko zerbitzu kudeatzaileak horretarako eskaera egin ondoren.
- d) Proiektua egiteko epea betetzen ez bada jasotako kopurua itzuli beharko da, baita sortutako berandutze-interesak ere, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritza Nagusiak errekerimendua egin ondoren.
- e) Diru-laguntza horretarako eskatutako baldintzak bete gabe lortu bada.
- f) Ezarritako kontrol-jarduerak egiteari uko egiten bazaio edo eragozpenak jartzen badira.
- g) Foru dekretu honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen ez badira.

2. Diru-laguntza jaso duen jardueraren kostua baino finantziario gehiago jasotzen bada, diru-laguntza itzuli beharko da.

19. oinarria. — Aurrekontuko partida

1. Deialdi honetako diru-laguntzak emateko 2019. urtean indarrean dagoen aurrekontu-muga honako hau da:

Milioi bat hirurogehi mila euro (1.060.000 euro), 2019ko ekitaldiko 0406G/335106/45100/0000 partidaren kargura, 2008/0042 proiektua.

2. Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bateginaren (2013ko abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onetsi zen) 56.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, foru dekretu honen babesean emaniko diru-laguntzak baliadun izateko baldintza bat bete beharko da: dagokion ekitaldian foru dekretutik eratorritako betebeharrak finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa izatea. Halakorik ez bada, balio gabe geratuko dira diru-laguntza horiek.

3. Deialdiko eskabide guztiak ebatzi ondoren, guztira diru-laguntzetarako emandako diru kopurua aurrekontu-muga baino txikiagoa balitz, gastu-baimenaren ezeztapena tramitatuko litzateke, soberan den zenbatekoan.



AZKEN XEDAPENAK

Lehenengo Azken Xedapena.— *Arauk emateko gaikuntza*

Ahalmena ematen zaio Euskara eta Kulturako foru diputatuari foru dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarren Azken Xedapena.— *Indarrean jartzea*

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2018ko abenduaren 18an.

Euskara eta Kulturako foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA

Ahaldun Nagusia
UNAI REMENTERIA MAIZ